

## BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

6167

*65/2021 EBAZPENA, azaroaren 23koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita 2021. urtean zuzeneko dirulaguntzak ematea Euskadin egoitza edo ordezkaritza duten prentsa eta irradi komunikabideei, COVID-19 pandemiaren eragin ekonomikoa dela eta.*

2021eko azaroaren 23an eginiko batzarrean, Gobernu Kontseiluak onetsi egin du «Euskadin egoitza edo ordezkaritza duten prentsa eta irradi komunikabideei 2021. urtean zuzeneko dirulaguntzak emateko erabakia, COVID-19 pandemiaren eragin ekonomikoa dela eta». Horrenbestez, erabaki horri beharrezko publikotasuna emateko, hau

### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea «Euskadin egoitza edo ordezkaritza duten prentsa eta irradi komunikabideei 2021. urtean zuzeneko dirulaguntzak emateko erabakia, COVID-19 pandemiaren eragin ekonomikoa dela-eta hartua». Erabaki hori eranskinean dago jasota.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 23a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,  
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

## ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN AZAROAREN 23KO 65/2021 EBAZPENARENA

### ERABAKIA, EUSKADIN EGOITZA EDO ORDEZKARITZA DUTEN PRENTSA ETA IRRATI KOMUNIKABIDEEI 2021. URTEAN ZUZENENKO DIRULAGUNTZAK EMATEARI BURUZKOA, COVID-19 PANDEMIAREN ERAGIN EKONOMIKOA DELA ETA

Europako Eskualdeetako Lantaldeak, 2019ko otsailean, «Lineako desinformazioaren aurkako borroka: Europako ikuspegia» izeneko irizpena onartu zuen, Euskadiren parte-hartzearekin. Irizpen horrek tokiko eta eskualdeko kalitatezko komunikabideak izatearen garrantzia azpimarratzen du. Irizpenak nabarmentzen duenez, hori bereziki garrantzitsua da komunikabide horien ekoizpena eta kontsumoa zeharkatzen ari diren trantsizio-fasean.

Testuinguru horretan, adierazten da tokiko prentsa posizio zailean dagoela Batasuneko estatu kide askotan, finantza-egoera ahulean dagoelako. Hori dela eta, irizpenak eskatzen du «Europa osorako eztabaida bat hastea lurralde-erakundeek (tokiko komunitateak, baina baita maila zentralako eta Europako erakundeek ere) tokiko prentsari laguntzeko moduari buruz, adibidez, komunikabide jakin batzuei sorospenak emanez, iritzi-aniztasun osasungarria bermatzeko eta, aldi berean, Batasunaren barne-merkatuaren printzipioak eta, bereziki, estatu-laguntzei buruzko xedapenak errespetatuz».

Gizarte-murrizketen testuinguru orokorrak eta COVID-19aren eragin ekonomiko handiak egunerokoen salmentak jaistea eta eguneroko prentsan eta irratiaren publizitate-inbertsioak atzeratzea ekarri dute; ondorio horiek are gehiago ahuldu dituzte euskal komunikabideen finantza-egoera eta bideragarritasun-aukerak, eta arriskuan jarri dute euskal ekosistema mediatikoa. Hala ere, pandemiaren testuinguru globalak are ageriagoan utzi du gizarte demokratikoen komunikabide profesional eta sendoak izan behar dituztela desinformazioaren aurka borrokatzeko eta balio demokratikoak indartzeko.

Azken batean, komunikabideen eginkizuna ezinbestekoa izan da eta da gizarteari egiazko eta kalitatezko informazioa emateko eta herritarrek informazio hori jasotzeko duten eskubidea zaintzeko. Une historiko eta bereziki garrantzitsu honetan, pandemia batean alegia, eskubide asko mugatu dira osasun publikorako eskubidearen onura komuna bermatzeagatik, eta herritar bakoitzak, eta gizarteak oro har, tokiko nahiz nazioarteko botere publikoek hartutako erabakiei buruzko informazioa eskuratzeko aukera izan behar dute, erabaki horiek beren eguneroko bizitzari eta oinarriko eskubideei eragiten dietenean. Era berean, herritarrek modu fidagarri, profesional eta egiaztatuan jakin behar dute beren ingurunean zer gertatzen den bizitza pertsonala, soziala, kulturala, lanekoa edo enpresakoa garatzeko, edo gizarte honen parte diren aldetik dituzten betebeharrak eta eskubideak garatzeko. Informaziorako eskubide hori bermatzen dute komunikabideek gurea bezalako gizarte demokratiko batean.

Horregatik guztiagatik, Eusko Jaurlaritzak, Europako Eskualdeetako Lantaldeak pandemiaren eraginpeko sektoreek jaso dituzten beste laguntza batzuekin bat etorri egindako planteamenduari erantzunez, zuzeneko dirulaguntzen programa hau proposatzen du tokiko prentsa eta irrati komunikabideentzat.

Pandemia hasi zenetik, Eusko Jaurlaritzaren lehentasuna izan da COVID-19aren hedapena mugatzea eta hari aurre egitea, alde batetik, pertsonen osasunean duen inpaktua minimizatzeke, eta, bestetik, izaera desberdineko hainbat neurri eta jarduera abian jartzeko, hedapen globalak eta ustekabekoak jarduera ekonomiko eta industrialean sortu duen eta eragiten ari den inpaktu negatiboa murrizteko, jarduera hori enplegu- eta ongizatea-iturria baita euskal gizarte osoarentzat.

Europako Batzordeak, 2020ko martxoaren 19an, onartu zuen (C/2020/1863), COVID-19 delakoa- ren krisiaren aurrean ekonomiari laguntzeko laguntzei buruzko aldi baterako esparrua (aurrerantzean, EBren Aldi baterako Esparrua), eta bertan kokatzen da COVID-19a hedatzearen ondoriozko ezohiko, bat-bateko eta ezusteko krisia. Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikulua 3. paragrafoaren b) idatz-zatiaren arabera, Batzordeak barne-merkatuarekin bate-ragarritzat jo ditzake «estatu kide baten ekonomian nahasmendu larri bat konpontzeko» laguntzak.

Estatu-laguntzei buruzko araudia betetzeari dagokionez, laguntza hau eratu da uneko COVID-19 pandemiaren testuinguruan ekonomia babesteko estatu-laguntzen neurriei buruzko EBren Aldi Baterako Esparruaren (EBAO, C 91 I/01, 2020-03-20) arabera. Aldi baterako esparru horrek, besteak beste, enpresei eta autonomoei laguntzeko neurriak ahalbidetzen ditu, hala nola zuzeneko dirulaguntzak, aurrerakin itzulgarriak, zerga-abantailak, maileguen bermeak eta interes-tasen hoba-riak uneko COVID-19 pandemiaren testuinguruan ekonomia babesteko maileguetan. Esparru hori hainbat aldiz aldatu da, eta azkena 2021eko urtarrilaren 28koa izan zen; horren bidez, ezarritako neurriak 2021eko abenduaren 31ra arte luzatu ziren.

EBren Aldi Baterako Esparrua Estatuan aplikatzeko, Espainiako Gobernuak Batzordearen komunikazioan oinarritutako aldi baterako esparru nazionala jakinarazi zuen. Aldi baterako esparru nazional hori Europako Batzordearen erabaki baten bidez baimendu zen lehenengo aldiz 2020ko apirilaren 2an (SA.56851 (2020/N)). EBren aldi baterako esparruari bezala, hainbat aldaketa egin zaizkio aldi baterako esparru nazionalari. Aldi baterako esparru nazionalaren helburua da Estatuko Administrazio Orokorrek, autonomia-erkidegoetako administrazioek, toki-administrazioa osatzen duten erakundeek eta aurreko administrazioei lotuta edo haien mendean dauden eta nortasun juri-diko propioa duten zuzenbide publikoko gainerako erakundeek barne-merkatuarekin bateragarriak diren laguntzak ematea.

Ondorioz, Europako Batzordeak barne-merkatuarekin bateragarriak diren zenbateko mugatuko aldi baterako laguntza jakin batzuk hartuko ditu kontuan EBFTko 107. artikuluko 3. paragrafoko b) idatz-zatiaren arabera, baldin eta laguntza zuzenak emateko ezarritako baldintzak betetzen badira. Baldintza horien artean dago laguntza globala ez izatea 1.800.000 eurotik gorakoa enpresa bakoitzeko, eta aurrekontu zenbatetsia duen araubide baten arabera ematea, 2021eko abenduaren 31 baino lehen. Ildo horretan, adierazi behar da kasu honetan bete egiten dela akordio honen xede diren zuzeneko laguntzak emateko ezarritako Europako araudia.

Dirulaguntzen hartzaille izango dira Euskadin egoitza duten eguneroko prentsa idatziko komuni-kabide pribatuak eta EAEn egoitza duten edo EAEn ordezkariak duten orotariko programazioko irriatiak, gutxienez hiru lurralde historikoetako baten eremua hartzen dutenak. Dirulaguntza honen ondorioetarako, programazio propiotzat joko da programazioaren % 15, gutxienez, astelehenetik ostiralera izatea, 07:00etatik 24:00etara, deskonexioan egina eta Euskal Autonomia Erkidegoko entzuleei soilik zuzendua. Laguntzetatik kanpo geratuko dira komunikabide publikoak eta irriati tema-tikoak, hala nola musika, kirol edo beste edozein motatako irriati-formulak, horien helburu nagusia, informazio orokorra baino gehiago, informazio espezializatua edo entretenimendua baitira.

Hedabide bakoitzak duen audientziaren irizpideari jarraituz banatuko dira dirulaguntzak. Errefe-rentzia-iturria CIES enpresak 2021eko lehen sei hilekoan egindako EAeko Medioen Azterlanaren Txostena izango da. Dirulaguntza lerro hori eskuratu ahal izateko, 7.000 pertsonako gutxieneko audientzia ezartzen da, oro har, EAEn.

Dirulaguntzak ordainketa bakarrean banatuko dira, audientziarekiko proportzioan. Eguneroko prentsa idatziaren kasuan, kontuan hartuko da bi euskarrietan (paperean eta digitalean) metatu-tako audientzia. Irriati jeneralistaren kasuan, EAEn aldi bereko edukia emititzen duten lurralde eta

toki emisora guztien audientzien batura hartuko da kontuan. Euskara hutsez emititzen duten irrati-tien kasuan, dirulaguntza lerro honetan sartzeko gutxienerako audientzia 5.000 pertsonakoa izango da. Nolanahi ere, jaso beharreko gutxienerako dirulaguntza 40.000 eurokoa izango da.

Ondorioz, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren proposamenez, Gobernu Kontseiluak 2021eko azaroaren 23an egindako bilkuran aztertu ondoren, honako erabaki hau hartu du:

### ERABAKIA

Lehenengoa.– Zuzeneko dirulaguntzak ematea, 2021. urtean eta guztira 5.000.000 euro, honako zerrenda honetan ageri diren prentsa- eta irrati-komunikabideei, bertan zehazten diren banakako zenbatekoetan, COVID-19ak Euskadin egoitza edo ordezkariak duten gizarte-komunikabideetan eragindako inpaktu ekonomikoren ondorioak arintzeko.

Egunkariak	Hirugarrena	IFZ	Audientzia (milakotan)			%	Dirulaguntza
			Papera	Digitala	Guztira		
El Correo	Diario El Correo SA	A48536858	243	394	637	32,31861999	1.608.716,91 €
Diario Vasco	Sdad. Vascongada de Publicaciones SA	A20004073	141	155	296	15,01775748	747.535,64 €
Deia	Editorial Iparragirre SA	A48082440	65	156	221	11,21258245	558.126,27 €
Gara	Baigorri Argitaletxe SA	A01276906	48	73	121	6,139015728	305.580,45 €
Noticias de Gipuzkoa	Urgull 2004 SA	A20825808	19	49	68	3,450025368	171.731,16 €
Diario Noticias de Álava	Ediciones Izoria 2004 SL	B01373489	13	32	45	2,283105023	113.645,62 €
Berria	Euskal Editorea SL	B20809042	58	57	115	5,834601725	290.427,70 €
Guztira			587	916	1.503	%76	3.795.763,75 €

Irratiak	Hirugarrena	IFZ	Audientzia (milakotan)	%	Dirulaguntza
SER	Sdad. Española de Radiodifusión SLU	B28016970	206	10,45154744	520.244,41 €
Nervión	FM Nervión SA	A48197321	89	4,515474378	224.765,78 €
COPE	Radio Popular SA	A28281368	69	3,500761035	174.256,62 €
Onda Cero	Uniprex SAU	A28782936	49	2,486047692	123.747,45 €
Onda Vasca	Eusko Media SL	B95257754	29	1,471334348	73.238,29 €
Herri Irratia	Radio Popular de Bilbao	V48062863	10	0,507356672	25.254,58 €
Radio 7	Radio 7 SL	B48240931	9	0,456621005	22.729,12 €
Bizkaia Irratia*	Irratibide SA	A48111819	7	0,35514967	40.000,00 €
Guztira			468	%24	1.204.236,25 €

Guztira egunkariak eta irratiak		1971	%100	5.000.000,00 €
---------------------------------	--	------	------	----------------

\*Bizkaia Irratia: Audientzien arabera 17.678,21 €ko laguntza legokioke, baina euskara hutsean emititzen duen irrati izanik, ezarritako irizpideen arabera, 40.000,00 €ko laguntza esleitzen zaio.

Dirulaguntzak aurrekontu-aplikazio hauen kontura egingo dira:

21.0.1.11.01.0010.1.452.00.12291.001/E

21.0.1.11.01.0010.2.452.00.12291.001/F

21.0.1.11.01.0010.3.452.00.12291.001/G

21.0.1.11.01.0010.4.452.00.12291.001/H

Bigarrena.– Dirulaguntzaren ordainketa epe bakar batean egingo da, betiere dirulaguntza eman zelaren jakinarazpenetik hamar eguneko epean berariaz uko egin ez bazaio; izan ere, erakunde onuradunek konpromisoa hartu dute herritarrari eman beharreko pandemiari buruzko hurbiltasuneko informazio eta zerbitzu ildo berari eusteko. Ordainketak berekin ekarriko du jarduera gutxienez bi urtez mantentzea, dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintza berberetan:

– Irratiek beren programazioaren % 15, gutxienez, deskonexioan eskainiko dute, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde eremuko entzuleei soilik zuzenduta.

– Prentsa idatzizko hedabideek gutxieneko ehuneko estaldura bera eman beharko diote Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde eremura mugatutako informazioari.

Baldintza horiek betetzen ez badira edo jarduera bertan betera uzten bada, dirulaguntza itzuli beharko da, araudi aplikagarrian xedatutakoaren arabera, eta, bereziki, azaroaren 11ko 1/1997 Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginean xedatutakoaren arabera.

Hirugarrena.– Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzak kudeatuko du dirulaguntza.

Laugarrena.– Dirulaguntza horiek bateragarriak dira beste edozein erakunde publikok edo pribatuk helburu berberarekin eman ditzakeenekin, betiere gainfinantzaketarik gertatzen ez bada, eta COVID-19aren krisiari aurre egiteko ekonomiari laguntzeko laguntzei buruzko aldi baterako esparruan (Europako Batzordeak onartu zuen 2020ko martxoaren 19an - C/2020/1863), eta ondorengo aldaketetan xedatutakoari egokitzen bazaio; baita COVID-19aren euspen sanitariorako laguntza-neurriei buruzko aldi baterako esparru nazionalari ere Europako Batzordearen 2020-04-2ko SA.56851 (2020/N) eta 2020-04-24ko SA.57019 (2020/N) Erabakiaren bidez baimendua. Gainfinantzaketarik egonez gero, dagokion zenbatekoa itzultzeko espedientea izapidetuko da, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako moduan, eta laguntza eta dirulaguntza publikoen araubidea hausteagatik zehapenik ezartzen bada, dagozkion zenbatekoak ere itzuli beharko dira.

Bosgarrena.– Onuradunak azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren VI. tituluan aurreikusitako laguntzen eta dirulaguntzen araubide juridikoa bete beharko du, baita 50.2 artikuluan ezarritako betebeharrak ere, eta, bereziki, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak beren eginkizunak betez eskatzen dieten informazio guztia eman beharko du. Aplikagarriak dira, era berean, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluetan ezarritako baldintzak eta betebeharrak. Onuradunak ez baditu dirulaguntza emateko baldintzak betetzen, edo Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 53. artikuluan edo Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan jasotako kasuren bat gertatzen bada, dagokion itzulketa-espedientea hasiko da.

Seigarrena.– Ebazpen hau pertsona eta/edo erakunde interesdunei jakinaraztea, eta haren aurka jar ditzaketen errekursoen berri ematea.

Zazpigarrena.– Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrearekiko Harremanetarako Zuzendaritzak aginduko du erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.